


Euskal AEko 15 urte eta gehiagoko biztanleen % 89,9 Internetera konektatu da 2024an, 2023an baino ehuneko 1,6 puntu gehiago

Interneteko erabiltzaileen % 97,7k WhatsApp eta berehalako mezularitzako antzeko aplikazioak erabiltzen ditu

Eustaten datuen arabera, Euskal AEn 1.721.800 izan dira 2024ko bigarren hiruhilekoan Interneta erabili duten 15 urte eta gehiagoko pertsonak; hau da, azken hiru hilabeteetan, etxean, lantokian edo beste nonbait, Internetera konektatu direnak. Kopuru hori adin horretako biztanleen % 89,9 da, eta 2023ko aldi beretik 1,6 puntu igo da.

Aurreko urteetan bezala, 65 urte eta gehiagoko biztanleen artean hazi da gehien Interneteko erabiltzaileen kopurua 2024an: % 65era arte (ehuneko 3,8 puntu gehiago). Hala eta guztiz ere, 55-64 urtekoen taldetik (% 97,9) eta, bereziki, 54 urtetik beherakoen taldetik oso urrun daude zifrak, ia biztanle guztiek erabiltzen baitute Internet.

Euskal AEko 15 urte eta gehiagoko biztanleak, etxean IKT hornikuntzetarako sarbidearen arabera



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen buruzko inkesta. Familiak

Gizonen % 91k erabiltzen du Internet, eta emakumeen % 88,8k. Generoen arteko aldea ehuneko 2,2 puntutan dago 2024an, hau da, 2023an baino 0,2 puntu gehiago. Nabarmentzekoa da 11.600 internauta berri daudela 65 urte eta gehiagoko adin-tartean.

Alde horretatik, lurralde historikoetan ez dago alde nabarmenik. Araba da erabiltzaileen ehunekorik handiena duen lurralde historikoa (% 90), eta gehien hazi da 2023. urtearen aldean (ehuneko +2,4 puntu); ondoren, Bizkaia (% 89,9) eta Gipuzkoa (% 89,8) daude.

Euskal AEko hiru hiriburuei dagokienez, egoera aurrekoaren antzekoa da. Gasteiz, gainerakoek baino hazkunde handiagoa izan ondoren (+2,4 ehuneko-puntu), Interneteko erabiltzaileen proportziorik handiena duen hiriburua da (% 90), Bilbo (% 89,7) eta Donostia (% 89,1) baino hamarren batzuk gehiago. Eskualde mailan, ehuneko 3,1 puntuko aldea dago Plentzia-Mungiako balio handienaren (% 91,7) eta Arabako Mendialdeko balio txikienaren (% 88,6) artean.

Interneten erabilera gehiago hazi da pertsona ez-aktiboen eta langabeen artean

Jarduerari dagokionez, ia ikasle guztiek (% 99,9) eta biztanleria okupatuak (% 99,2) erabiltzen dute Internet. Bestalde, biztanleria ez-aktiboa eta langabetua (% 75,3), 2023ren aldean gehien (3,6 puntu) hazi den kolektiboa izan arren, gainerako bietatik oso urrun dago, ehuneko 24 puntu inguruko aldearekin.

Interneten nabigatzeko hizkuntza nagusia gaztelania da (% 97,4), ondoren euskara (% 19,5) eta ingelesa (% 18,5). Interneteko ia erabiltzaile guztiak (% 98,7) etxebizitza partikularretik sartzen dira.

Internet beste pertsona batzuekin komunikatzeko eta informazioa bilatzeko erabiltzen da gehien

Komunikatzeko eta informazioa eskuratzeko zerbitzuak dira Interneteko erabiltzaile gehienek gehien erabiltzen dituztenak (% 99,5). WhatsAppen eta berehalako mezularitzako antzeko beste aplikazio batzuen erabilera da hedatuena, Interneteko erabiltzaileen % 97,7k erabili baitute. Erabiltzaile gehienek (% 95etik gorako ehunekoekin) erabiltzen dute, ezaugarri sozio-demografikoak (adina, sexua, jarduerarekiko erlazioa) alde batera utzita. Adina kontuan hartuta, 65 urte eta gehiagoko pertsonak erabiltzen dituzte gutxien aplikazio horiek, erabiltzaileen % 95,9k, hau da, adin horretako biztanle guztien % 62,3k (aurreko urtean baino ehuneko 4 puntu gehiago).

Komunikazio- eta informazio-zerbitzu horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: mezu elektronikoak jasotzea edo bidaltzea (% 85,2), ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea (% 81,5) eta albisteak, egunkariak edo gaurkotasuneko aldizkariak irakurtzea (% 79).

Entretenimendurako eta sormenerako zerbitzuak erabiltzaileen % 88,3k erabiltzen ditu, batez ere gazteenek: 15 eta 24 urte bitarteko ia biztanle guztiek erabiltzen dituzte horrelako zerbitzuak, bereziki musika entzutekoak (% 91,4). Hazkunderik handiena eskaripeko filmak edo bideoak ikustean eman da (ehuneko +7,2 puntu) 2024an 2023an baino. Aitzitik, gehien murriztu den zerbitzua Web orri batean eduki propioak jartzea da, partekatua izan dadin; izan ere, Web orri horretan erabiltzaileen % 17,7 dago (-7,8 puntu).

Internet erabiltzen duten biztanleen % 61,9k administrazio elektronikoa erabili du, eta administrazioek emandako zerbitzuen artean, administrazio-izapideak telematikoki egitea da ohikoena (betetako inprimakiak bidalita) (% 58). Kalkuluen arabera, 1.276.400 pertsonak erabili dute banka elektronikoa (erabiltzaileen % 74,1ek, +2,8 puntu), 2023an baino 85.000 pertsona gehiagok.

977.000 pertsonak baino gehiagok erosi dituzte ondasunak eta zerbitzuak Internet bidez azken hiru hilabeteetan, hau da, 15 urte eta gehiagoko euskal biztanleriaren % 51k (ehuneko 2,6 puntu gehiago 2023an baino); zifra hori Internet erabiltzen duen biztanleriaren % 56,8 da. Internet bidez kontsumitzen duten ia pertsona guztiek erosi dute produktu fisikoren bat (% 92), hala nola arropa, oinetakoak edo osagarriak (% 66,2) edo etxerako ondasunak (% 34,2). Erdiek zerbitzuren bat erosi dute (% 49,2), hala nola kultura-ekitaldietarako sarrerak (% 29), ostatuak (% 28,4) edo garraio-zerbitzuak (% 23,4). Formatu fisikoan edo deskargatzeko moduan, Internet bidez kontsumitzen duten biztanleen % 16,5ek liburuak, aldizkariak edo egunkariak erosi ditu.

Aldea dago gizonen eta emakumeen Sarean erabiltzen dituzten zerbitzuetan

Internetek eskaintzen dituen zerbitzuen artean, emakumeen % 60,9k osasunarekin lotutako zerbitzuak erabiltzen ditu, hala nola osasunari buruzko informazioa bilatzea (Internet erabiltzen duten gizonen baino 10,6 puntu gehiago); emakumeen % 56,8k bidaietan eta ostatuarekin lotutako zerbitzuak erabiltzen dituzte (+7,5 puntu gehiago) eta emakumeen % 59,6k sare sozialetan parte hartzen dute (gizonen baino ehuneko 6,4 puntu gehiago). Bestalde, gizonen % 69,2k partekatzeko bideo-edukiak ikusten dituzte (emakume erabiltzaileek baino +6,2 puntu gehiago), gizonen % 32k jokoak jokatzen edo deskargatzen dituzte (+5,5 puntu gehiago) eta % 80,7k albisteak, egunkariak edo gaurkotasuneko aldizkariak irakurtzen dituzte (emakumeek baino +3,3 puntu gehiago).

Merkataritza elektronikoa ere aldeak daude sexuaren arabera: emakumeen % 73,7k arropa, oinetakoak eta osagarriak erosten ditu (gizonen baino ehuneko 15,4 puntu gehiago), emakumeen % 26,8k norberaren zaintzarako eta higienarako produktuak erosten ditu (ehuneko 9,4 puntu gehiago) eta % 30,9k kultura-ekitaldietarako sarrerak erosten ditu (+3,8 puntu). Gizonen artean, berriz, % 21ek ekipamendu elektronikoa erosten dute (emakumeek baino 11,9 puntu gehiago), % 12,6k ibilgailuak eta ordezkoko piezak (+9,6 puntu) eta kirol-materiala (arropa eta oinetakoak izan ezik) gizonen % 18,7k (+8,9 puntu).

Azken hiru hilabeteetan ordenagailua erabiltzeari dagokionez, biztanleriaren proportzioa % 70,1 da. Alde horretatik, gizonen % 72,8k erabiltzen du ordenagailua, eta emakumeen % 67,5ek. Beraz, generoen arteko aldea ehuneko 5,3 puntukoa da, 2023an baino ehuneko 0,4 puntu txikiagoa.


Familien ezaugarriek eragina dute etxeetako IKT ekipamenduetan

2024ko bigarren hiruhilekoan, 841.300 familiak dute Interneterako sarbidea beren etxebizitzetan (% 91,2), 2023an baino 21.600 familia gehiagok (+1 puntu). Biztanleriari dagokionez, 15 urte eta gehiagoko pertsonen % 94,7k (1.814.000) etxetik sar daiteke Sarean.

Bestalde, Euskal AEko etheen % 77,1ek ordenagailua du, hau da, biztanleen % 83,9k ordenagailua du etxean (+1,3 puntu 2023tik). Etxekoan unitateen % 98,2an telefono mugikorra dago, eta 15 urte eta gehiagoko biztanleriaren % 99,1ek sakelako telefonoa du (+0,5 puntu 2023tik).

Etxeetako ikus-entzunezko ekipamenduari dagokionez, % 59k ordainpeko telebista du (+2,8 puntu), hau da, aurreko urtean baino 33.800 familia gehiago. Biztanleriari dagokionez, biztanleriaren % 64,7k du zerbitzu hori etxean (55.300 pertsona gehiagok).

Euskal AEko familiak, etxebizitzaren IKT ekipamenduen arabera



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak

Familia-moten arteko aldeak murriztu arren, horiek esanguratsuak izaten jarraitzen dute. Alderik handienak seme-alabak dituzten familien eta gainerakoen artean gertatzen dira, batez ere bakarrik dauden pertsonen osatutako familien artean. Hala, seme-alabak dituzten familien % 99,6k Internetarako sarbidea dute etxebizitzan, bakarrik dauden pertsonen osatutako familien aldean ia 18,2 puntu gehiago (% 81,4).

Bestalde, seme-alabak dituzten familien % 94,3k ordenagailu motaren bat du etxean, 36,7 puntuko aldea bakarrik bizi diren familiekiko (% 57,6). Azkenik, telefono mugikorrak presentzia zabalduagoa du eta alde txikiagoak ditu; seme-alabak dituzten ia familia guztiek daukate (% 100), ondoren bikoteen % 99,4k eta bakarrik dauden pertsonen % 95ek.

Euskal AEko biztanleriaren IKT ekipamenduak eta Interneten erabiltzaileak. 2024

	2024 urtea		2023. urteari buruzko aldakuntza	
	Mila	%	Mila	*P.P.
ETXEEN HORNIKUNTZAK				
FAMILIAK	922,1	100,0		
Ordenagailu pertsonala	711,4	77,1	23,7	1,4
Telefono mugikorra	905,7	98,2	19,1	0,6
Internet	841,3	91,2	21,6	1,0
Semeekin/alabekin	406,5	99,6	2,7	0,1
Bikote bakarrekoak	186,1	89,3	7,8	1,5
Bakarrrik bizi diren pertsonak	248,7	81,4	11,1	2,1
15 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK	1.915,9	100,0		
Ordenagailu pertsonala	1.608,1	83,9	45,6	1,3
Internet	1.814,0	94,7	36,5	0,8
Ordainpeko telebista	1.239,0	64,7	55,3	2,2
DVD	304,0	15,9	0,0	0,0
Telefono mugikorra	1.899,1	99,1	32,9	0,5
INTERNET ERABILTZEN DUTEN BIZTANLEAK	1.721,8	89,9	50,5	1,6
Gizonak	837,9	91,0	24,2	1,7
Emakumeak	883,9	88,8	26,3	1,5
Araba / Álava	256,7	90,0	9,1	2,4
Bizkaia	902,8	89,9	23,6	1,2
Gipuzkoa	562,3	89,8	17,7	1,8
15-24 urte	220,3	99,9	10,0	0,0
25-34 urte	209,4	99,9	1,8	0,4
35-44 urte	272,9	99,6	-7,6	0,4
45-54 urte	353,2	99,3	7,5	0,6
55-64 urte	325,3	97,9	14,9	1,8
65 urte eta gehiago	340,7	65,0	23,8	3,8
Ikasten	230,6	99,9	15,3	0,0
Lanean	924,5	99,2	8,2	0,1
Langabezia edo jarduera-ezean	566,7	75,3	27,0	3,6
Etxetik sartzen dira	1.700,1	98,7	50,4	0,0
Lantokitik sartzen dira	677,9	39,4	4,8	-0,9
Ikastetxetik sartzen dira	209,5	12,2	17,5	0,7
			108,4	3,6
Euskaraz nabigatzen dute	335,3	19,5	0,0	-0,6
Gastelaniaz nabigatzen dute	1.676,4	97,4	56,2	0,5
Ingeleseraz nabigatzen dute	319,4	18,5	64,1	3,2
Internet bidez erosi duzu	977,5	56,8	60,5	1,9

p.p = Aldea portzentajezko puntutan

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Familiak

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62